

Ipar Euskal Herriko egoera ekonomikoa

azken ogei urte hauetan

Solange Mariluz



NON ZER

Aurkezpena	3
Sarrera	4
1. Egoera soziodemografikoa	5
1. Datu demografiko orokor zenbait	5
2. Hiritartzen ari den populazioaren hiru dinamika desberdineko eskualdeak	8
2. Biztanleria aktiboa	14
1. Emaidza orokorrak	14
2. Langabezia	16
3. Biztanleria okupatua (landunak)	19
3. Jarduera ekonomikoa	23
1. Jarduera ekonomikoaren aurkezpen orokorra	23
2. Jarduera nagusien ezaugarriak	26
Oharrak	46
Bibliografia	47
Mapa	48

Solange Mariluz, Ipar Euskal Herria: Haren biztalenria eta ekonomia 1980-2000. HEMEN elkarteak argitaratua. 2002.irailan

Yolanda Jubeto, Solange Mariluz, Mikel Zurbano Irizar, Euskal Herriko ekonomia. Eraldaketa sozioko-
nomikoak Europako Batasuneko integrazio prozesuan, UEU argitaletxea, 2002.



*«Hurbildu nahita pentsatzen nago ari garela urruntzen
Iparraldean zerua nola hasia dagon iluntzen
nahiz hasi ginen Euskal Herrian denok gauz bera burutzen
nik eskertzen dut nola ari diren ahal duten beste laguntzen
baina irudi zait Iparraldea ez dutela ezagutzen.
Kalera irten, alde guztitan entzun liteke frantsesa
iduri luke Iparraldea dela erdi bearnesa
hala ta guztiz, nahiz panorama dugun nahiko aldrebesa
eskutik heldu eta ekin aurrera, nahiz ta ez dagon erraza
bakoitzak bere aldetik baina, bat bera dugu ametsa».*

Amets Arzallus*

Aurkezpena

Agiri honetan argitaratzen dugun txostena ipar Euskal Herriko ekonomiaren egoerari buruzko azterketa interesgarri bat dugu; beronek azken urteotan aldagai jakingarriek izan duten bilakaera ere jasotzen du.

Argitalpen guztiak guretzat erronka izanagatik, esan beharra daukagu gaur aurkezten dugun testu honen zenbait osagai biziki interesgarriak direla:

- Lehenengoz jasotzen dugu argitalpen bakar batean Iparraldeari buruzko informazioa, hainbat esparruri buruzkoa: biztanleria, etxebizitza, enplegua, langabezia, jarduera ekonomikoa, sektoreak... Honela, Euskal Herriko alde hartako ekonomia eta gizartearen ikuspegi orokor bat ezagutu dezakegu.
- Ipar Euskal Herriko egoera aintzat hartzearekin batera eztabaida politikoaren erdigunean dauden sakoneko gaiak –lurraldetasuna kasu– edota erakunde politiko eta sozialoi dagozkigunak –jarduera esparrua– agertzen dira. Alabaina, gai hauek ez dira agiri honetan jorratuko, eta datozen lan batzutan aztertuko ditugu.

Gure esker ona adierazi nahi diogu Solange Mariluz agiria egin duen lantaldearen arduradun eta koordinatzaileari, jatorriko lana datu eta osagai berriekin aberastu baitigu; gure esker ona, halaber, Angeluko Hemen elkarteari, lana lapurteraz eta frantsesez argitara eman zuena, argitaraldi berri hau egiteko baimena eman duelako, eta Udako Euskal Unibertsitateari, euskara batuan egindako bertsoaren jabe baita.

Fernando Iraeta

Manu Robles-Arangiz Institutuaren zuzendaria

* Oiarzungo Madalensoron 2003ko urtarrilaren 5an Amets Arzallusek botatako bertsoak.

SARRERA

Eskuetan duzuen agiri hau HEMEN elkarteko 'Euskal Herriko ekonomia ezagutze-ko' batzordeak egindako lanaren fruitua da.

Euskal Herriko ekonomia ezagutarazi eta bultzarazi nahian dabilen HEMEN elkar-teak hainbat ekitaldi antolatu ditu bere asmoak plazaratzeko: 'Ongi Heldu Euskal Herrian' ekimena, lankidetzeta-ekonomiari hainbat sari ematea, mintzaldiak, ...

Honako helburuok ditu HEMENen txosten honek:

- Irakurleak Ipar Euskal Herriko arlo sozial eta ekonomiaren inguruko datuak eskuetan ukan ahal izatea;

- Ipar Euskal Herriko azken urteotako datuen bilduma egitea.

Alabaina, gaur arte argitaratu diren txostenak 1990eko emaitzetan oinarritzen dira, edo gizartearen zein ekonomiaren atal batzuk baizik ez dituzte ageri. Horregatik, funtsezkoa zitzaigun datuak gaurkotzea eta lan horri lotu ginen. Egiazko xinaurri-lana burutu behar izan da emaitzak handik eta hemendik biltzeko eta horiek tratatzeko.

Bertzalde, interesgarri iduritu zaigu –abiapuntu gisa– nornahirentzat eskuragarri izanen zen dokumentu-bilduma bat osatzea, ondotik azterlan sakonagoak buru-tzeko.

Euskal Herriko ekonomiaren ikuspegi orokorragoa eskuratu nahi izanez gero, hona non aurkituko duzuen ikerlan hau: Udako Euskal Unibertsitateko ekonomia-sailak osatu Euskal Herriko Ekonomia izeneko artikulu-bilduman.

Gure lan honetan izan ditugun oztopoetatik bi aipatuko genituzke:

- lehena, Ipar Euskal Herrian ezagupen juridiko eta administratibo ezaren ondorioz holako ikerketak guziz zailduak dira emaitza arras urriak bihurtuz.

- bigarrena, denbora eta baliabide eskasez, erabaki dugu Frantziako eroldaren emaitzen ustiaketa kantonamenduka burutzea. Ondorioz, udal herri batzuen emaitzak dagokien herrialdean jarri beharrean ondokoan kontabilizatu dira. Hala izanik ere, azterketa sendo baten egiteko zehaztasun-hein onargarri bate-ra heldu garela deritzogu.

Txosten hau irakurtzea Ipar Euskal Herriaren egoera sozial, ekonomiko zein demo-grafikoaren ikuspegi zehatzagoa izaten lagungarri izango zaizulakoan.

Solange Mariluz

'Euskal Herriko ekonomiaren ezagutza' lan-taldearen arduraduna

EGOERA SOZIODEMOGRAFIKOA

1. DATU DEMOGRAFIKO OROKOR ZENBAIT

Populazioa hazten ari da Ipar Euskal Herrian (IEH). Hazkunde hau exogenoa da; erran nahi baita, migrazio-saldo positiboari esker gertatzen dela, eta ez bertako sortzeei esker, berezko saldoa negatiboa baita.

a) Populazioa hazten ari da, eta lurralde-deso rekek areagotuz doaz

Gaur egun Ipar Euskal Herriak 262.311 biztanle ditu, Euskal Herriaren %9,1.

Azken 25 urte hauetan populazioa %15 hazi da, EHko biztanleriarena %5,35 emendatu den bitartean.

Dentsitateari so eginez, IEHan, 88 biztanle ditugu kilometro karratuko, 77 zirelarik 1975ean.


EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1975etik 1999ra BITARTEAN

	1975	1982	1990	1999	%75/99
Araba	230.670	261.780	274.330	285.250	23,66
Bizkaia	1.133.780	1.196.573	1.168.377	1.134.955	0,10
Gipuzkoa	666.737	698.238	684.094	675.695	1,04
Nafarroa Garaia	480.751	513.309	523.482	530.394	10,33
Nafarroa Beherea	27.407	26.148	25.356	24.565	-10,37
Lapurdi	184.161	194.937	209.918	224.275	21,78
Zuberoa	16.247	15.404	14.367	13.471	-17,09
Ipar Euskal Herria	227.815	236.489	249.641	262.311	15,14
EUSKAL HERRIA	2.741.753	2.906.389	2.899.924	2.888.605	53,3


Iturriak: INSEE (RGP 99), BBV fundazioa.

Geroago ikusiko dugun bezala, IEHko biztanleria kostako herrietan kokatua da eta bi hamarkada hauetan Lapurdiko herriek emendio azkarra izan badute ere, barnealdekoek etengabe galdu dute biztanleria.

G 1: EUSKAL HERRIKO BIZTANLEARIAREN BILAKERA LURRALDEKA



G 2: EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIAREN BANAKETA



Iturriak: INSEE (RP 99), BBV fundazioa

b) Berezko saldoa negatiboa da

1975. urtera arte sortzeak gehiago izan dira hiltzeak baino, baina egoera hori itzulikatu egin da eta geroztik heriotzak nagusitu dira, tartea handituz +1455, 1975 eta 1982. urteen artean; +3249, 1982 eta 1990. urteen artean, eta +4303, 1990 eta 1999. urteen artean.

IPAR EUSKAL HERRIKO SORTZEAK, HERIOTZAK ETA SALDO NATURALA

	1990		1999		1982 Berezko saldoa	1990 Berezko saldoa	1999 Berezko saldoa
	Sortzeak	Heriotzak	Sortzeak	Heriotzak			
Lapurdi	17.993	19.659	20.264	22.536	-588	-1.666	-2.272
<i>kostaldea</i>	14.325	15.329	15.906	17.490	-225	-1.004	-1.584
<i>barnealdea</i>	3.668	4.330	4.358	5.046	-363	-662	-688
Nafarroa Beherea	2.018	2.979	2.118	3.274	-479	-961	-1.156
Zuberoa	1.095	1.717	1.016	1.891	-388	-622	-875
Ipar Euskal Herria	21.106	24.355	23.398	27.701	-1.455	-3.249	-4.303

Egoera hori zehazteko, bi adierazle nagusi hartu behar dira kontuan: sortasu-na (jaiotzak alegia) eta hilkortasuna (heriotzak).

Sortasun-tasa apalduz joan da. 1975 eta 1982. urteen artean, 1000 pertsona hartuz, 11,5 sortze izan ziren urteko eta 1990 eta 1999. urteen artean 10,2 sortze.

Zuberoa eta Nafarroa Beherean sortasun-tasak arras apalak dira: 8 eta 9,4 sortze 1999an.

Hilkortasun-tasari doakionez, aldaketa handirik ez da izan. 1975 eta 1982. urteen artean 12,4 heriotza izan ziren urteko, eta 1990 eta 1999. urteen artean 12. Hobekuntza arin horrek ez du errealitatea adierazten: urte guziz, migrazio-saldoa kontuan hartu gabe, 1000 jendeetatik, 2 desagertzen dira.

SORTASUN- ETA HILKORTASUN-TASAK IPAR EUSKAL HERRIAN


	Sortasun-tasa (1000)			Hilkortasun-tasa (1000)		
	1975/1982	1982/1990	1990/1999	1975/1982	1982/1990	1990/1999
Lapurdi	11,7	11	10,4	12,1	12,2	11,5
<i>kostaldea</i>	11,6	11,1	10,4	11,9	12	11,4
<i>barnealdea</i>	11,9	10,8	10,3	13,1	12,8	11,9
Nafarroa Beherea	11,4	10	9,4	13,9	14,4	14,5
Zuberoa	10,3	9,1	8	13,8	14,3	15,1
Ipar Euskal Herria	11,5	10,8	10,2	12,4	12,6	12

Azalpenen aldetik populazioaren zahartzea arrazoi nagusienetarikoa bat da.

1975ean, 60 urte baino gehiagokoek populazioaren %24 biltzen zuten eta gaur egun % 27,4. Denbora berean 19 urte baino gutxiagokoek proportzioa apalduz joan da, %28,8tik %21,3ra pasatuz.

2010. urterako aitzin-ikuspenek joera horren sakontzea iragartzen dute, batez ere baby-boom garaiko belaunaldi oso bat 60 urtetik arras hurbil dela jakinez eta ugalkortasunaren apaltzea ikusiz.


G 3: IPAR EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIAREN ZAHARTZEA 1975ETIK AURRERA



Iturria: INSEE, RP 99

Barnealdean, sexuen desoreka eta bereziki ugaltzeko adinean diren emazteen eskasia ere aipa daitezke. Honela, 1999an, Nafarroa Beherean, 20-39 urte artekoen artean emazteek %47,1 ordezkatzen dute eta Zuberoan, %46,3. Ondorioz ezkongia-betasuna handia izaten da gizonen artean.

G 4: 20-39 URTE ARTEKO GIZON ETA EMAZTEEN BANAKETA 1999AN



Iturria: INSEE, RP 99

c) *Migrazio-saldo positiboak galtzeak estaltzen eta gainditzen ditu*

IEHan populazioa, migrazio-saldo (sartzen eta ateratzen direnen artekoa) positiboari esker ari da emendatzen. 1990 eta 1999. urteen artean, berezko saldoak 4.303 pertsonen eskastea erakusten badu ere, migrazio-saldoak 16.973ko soberatzea ekarri du. 80ko hamarkadan, berezko saldoa -3.249koa eta migrazio-saldoa 16.647koa ziren.

MIGRAZIO-SALDOAK 1982, 1990 ETA 1999an

	1982	1990	1999
Lapurdiko kostaldea	7.259	11.704	10.874
Lapurdiko barnealdea	4.077	4.943	5.755
Lapurdi	11.336	16.647	16.629
Nafarroa Beherea	-780	169	365
Zuberoa	-455	-415	-21
Ipar Euskal Herria	10.101	16.401	16.973

Etorkinak nagusiki Frantziako Estatutik datoz eta bereziki Paris eskualdetik, Gironde-tik eta Landetatik.

Nahiz kanpotik etortzen den jendea nagusiki erretretaduna dela iritzi komuna den, Ipar Euskal Herriak jende gaztea erakartzen du nagusiki. Populazio hori nagusiki haurrez osatutako familia izaten da. Hala ere, erretretadunen proportzioa handia da.

Kanporat joaten direnen artean, gazteriarren proportzioa biziki gora da. Parte handi batez Parisera emigratzen dute.


Migrazio-saldoa negatiboa da 20-30 urte bitarteko kasuan eta positiboa bertze adin klaseetako kasuan (bereziki 60-70 urte bitartekoentzat); horrek ere eragina du biztanleriaren zahartzean.

2. HIRITARTZEN ARI DEN POPULAZIOAREN HIRU DINAMIKA DESBERDINEKO ESKUALDEAK

90eko hamarkadan Garapen Kontseiluko lanak agerrarazi duen bezala, Ipar Euskal Herria hiru dinamika desberdineko eskualdez osatua da.

Lehenik, Baionatik Hendaiaraino biztanle gehien kontaktzen eta azkarki betetzen ari den Lapurdiko kostaldea dugu. Ondotik, hazkunde demografiko handiena ezagutzen ari den Lapurdiko barnealdea; eta, azkenik, jendetza galtzen ari den Nafarroa Beherea eta Zuberoa (barnealdea deituko duguna).

G 5: IPAR EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1975ETIK 1999RAT



a) Kostaldearen hazkunde erregularra

Kostaldeak populazioaren %66,5 biltzen du (174.520 biztanle), parte handiena (112.403 biztanle) Baiona-Angelu-Biarritz (BAB) eskualde txikian kokatuta egonik.

25 urte hauetan populazioa haziz joan da, eta Lapurdi barnealdeko populazioa bezain azkar emendatu ez bada ere, gorakada azpimarratzekoa da (+%18,3koa), batez ere lurraldearen hertsitasuna ikusiz. Honela, 1999an, 265,5 km²-ko zabalerako eskualde horretan, 657 biztanle bizi dira km²-ko, Ipar Euskal Herrian, oro har, 88 bizi direlarik. Biarritz eta Baionako kantonamenduek dentsitate azkarrena dute: 2.578 eta 1.849 bizt/km², hurrunez hurren.

Populazioa galdu duen kantonamendu bakarra Baionakoa da. 70 eta 80ko hamarkadetan Baionako biztanleriak zentrotik ihes egin du, espazio eta argitasunaren bila.

LAPURDI KOSTALDEAREN POPULAZIOAREN BILAKAERA 1975ETIK AURRERA

	1975	1982	1990	1999	%90/99	%75/99
Angelu	25.245	29.821	33.041	35.263	6,72	39,68
Baiona	49.029	47.550	46.865	47.085	0,47	-3,97
Biarritz	27.595	26.598	28.742	30.055	4,57	8,91
Hendaia	20.942	22.265	24.219	26.753	10,46	27,75
Donibane Lohizune	17.443	19.014	20.912	22.298	6,63	27,93
Hiriburu	7.242	9.282	11.451	13.066	14,1	80,42
Lapurdi Kostaldea	147.496	154.530	165.230	174.520	5,62	18,32
100 indizea	100	104,77	112,02	118,32		
LAPURDI	184.161	194.937	209.918	224.275	6,84	21,78
100 indizea	100	105,85	113,99	121,78		

Kostaldean, dentsitatearen azkartzearekin batera, lurraren eskatea gertatu da eta gaur egun lurr-presio handia dago, lurraren metro karratuak 91 eurotik goitiko prezioa baitu eskualde osoan.

Biztanleriaren presentzia segitua Donostiraino doa eta 600.000 biztanle bilduak dira aitzin-diseinatzan ari den Baiona-Donostia Euro Hirian.


Kostaldean, etxebizitza gehienak nagusiak baldin badira ere, bigarren etxebizitzaren garrantzia azpimarra daiteke. Etxebizitzaren %21,3 ordezkatzen dute, Lapurdi barnealdean proportzio hau %9,7koa delarik eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan %11,3 eta 13,2koa. Egoera hori kostaldeak duen bokazio turistikoari lotzen zaio.

Bertzalde, etxebizitza nagusien artean, etxebizitza kolektiboak dira gehienak (%58) eta etxebizitza indibidualek parkearen %38,1 biltzen dute.

ETXEBIZITZA-KATEGORIEN BANAKETA ESQUALDEKA, 1990 ETA 1999AN

	Etxebizitzak		Etxebizitza nagusiak (%)		Bigarren etxebizitzak (%)		Etxebizitza hutsak (%)	
	1999	1990	1999	1990	1999	1990	1999	
Lapurdi kostaldea	107.024	73,5	73,3	20,7	21,3	5,8	5,4	
Lapurdi Barnealdea	21.729	82,2	83	10,8	9,7	6,9	7,3	
Lapurdi	128.753	74,9	75	19,2	19,3	6	5,7	
Nafarroa Beherea	11.022	76	79,5	12,6	11,3	11,4	9,2	
Zuberoa	6.666	79,8	79	12,6	13,2	7,6	7,8	
Ipar Euskal Herria	146.441	75,2	75,5	18,3	18,4	6,5	6,1	

G 6: ETXEBIZITZA NAGUSI MOTEN BANAKETA ESKUALDEKA 1999AN



b) Lapurdi barnealdearen hazkunde azkarra

Lapurdi barnealdeak —“ararteko eskualdea” deitzen zaiona— populazioaren hazkunde azkarra izan du 25 urte hauetan (+%35,7). Uztaritzeko kantonamendua gehien hazi dena da (+%75,9). Dentsitatea azkarra ez bada ere, igo egin da, eta metro karratu bakoitzak 16/17 biztanle irabazi ditu (63 bizt/km²). Gaur egun Lapurdi barnealdeak 49.755 biztanle ditu (36.665, 1975ean).

Herri aberats gehienetan bezala, Ipar Euskal Herrian etxe indibidualak eraikitze joera azkartzen doa. Kostaldeko lurak arras garestiak bilakatu direnez, jendea gero eta urrunago doa lur erosgarria aurkitzeko. Bertzalde, barnealderanzko penetrazioek —errepide zabalduak bereziki— denborazko distantziak murriztu dituzte, eta kostaldeko hirietatik abiatzen den urbanizazioaren hedatze azkarra errazten lagundu dute. Ondorioz, biztanleria ardatz-errepide horien inguruan kokatuz doa.

Eskualde honetako populazioa bertzeetan baino gazteagoa da. Honela, 20 urte baino guttiagokoek biztanleriaren %23,9 osatzen dute, proportzio hori %21,3koa delarik, batez bertze. 60 urte baino gehiagokoaren parte batez bertzekoa baino apalagoa da (%23,4koa eta %27,3koa, hurrenez hurren).

Hemen ere lur-presioaren azkartzea aipa daiteke, gazteen alokatze arazo larriak pausatuz. Horrela etxebizitza kolektiboen parte arras txikia da, %11,2koa, IEHko batez bertzekoa %44,9koa delarik. Hemen etxebizitza indibidualak dira nagusi: %85,2 (IEHen %52,1a).

LAPURDI BARNEALDEAREN POPULAZIOAREN BILAKAERA 1975etik AURRERA

	1975	1982	1990	1999	%90/99	%75/99
Bastida	4.052	4.425	5.301	5.776	8,96	42,55
Bidaxune	4.087	4.176	4.222	4.355	3,15	6,56
Ezpeleta	10.091	10.629	11.403	12.510	9,71	23,97
Hazparne	7.523	7.695	7.800	7.922	1,56	5,3
Ustaritze	10.912	13.482	15.962	19.192	20,24	75,88
Lapurdi Barnealdea	36.665	40.407	44.688	49.755	11,34	35,7
100 indizea	100	110,21	121,88	135,7		
Lapurdi	184.161	194.937	209.918	224.275	6,84	21,78
100 indizea	100	105,85	113,99	121,78		

c) Barnealdearen hustea

IEHko barnealdea bi probintzia historikoez osatua da: Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Nafarroa Behereak 24.565 biztanle ditu eta Zuberoak 13.471 biztanle, bien artean, beraz, IEHko jendetzaren %14,5 osatzen dute, eta lur-hedaduraren %64,4.

25 urte hauetan biztanleriaren kopurua etengabe murriztuz joan da, Nafarroa Behereak bere populazioaren %10,4 galdu duelarik eta Zuberoak %17,1.

Dentsitateari doakionez, bi probintziek ezaugarri bertsua dute: Nafarroa Be-hereak 20,2 biztanle ditu kilometro karratu bakoitzeko eta Zuberoak 19. Zuberoak 2 biztanle galdu ditu kilometro karratuko azken hamarkada honetan eta Nafarroa Behereak 1. Desoreka handia da 657,2 biztanle km²-ko biltzen dituen Lapurdiko kostaldearekin.

BARNEALDEKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1975ETIK AURRERA

	1975	1982	1990	1999	%90/99	%75/99
Iholdi	4.639	4.392	4.317	4.065	-5,84	-12,37
Baigorri	6.379	5.968	5.646	5.512	-2,37	-13,59
Donibane Garazi	6.983	6.719	6.540	6.290	-3,82	-9,92
Donapaleu	9.406	9.069	8.853	8.698	-1,75	-7,53
Nafarroa Beherea	27.407	26.148	25.356	24.565	-3,12	-10,37
100 indizea	100	95,41	92,52	89,63		
Maule	11.931	11.567	10.750	10.136	-5,71	-15,04
Atarratze	4.316	3.837	3.617	3.335	-7,08	-22,73
Zuberoa	16.247	15.404	14.367	13.471	-6,24	-17,09
100 indizea	100	94,81	88,43	82,91		
Ipar Euskal Herria	227.815	236.489	249.641	262.311	5,08	15,14
100 indizea	100	103,81	109,58	115,14		


Barnealdeko populazioaren galera ulertzeko, ezinbertzekoa da berezko saldoa eta migrazio-saldoa ikertzea.

Berezko saldoa negatiboa da bi probintzietan, eta geroz eta heriotza gehiago izan da bietan.

BEREZKO SALDOAREN BILAKAERA 1982TIK AURRERA

	1982	1990	1999
Nafarroa Beherea	-479	-961	-1156
Zuberoa	-388	-622	-875
Barnealdea	-867	-1583	-2031

G 7: BEREZKO SALDOAREN BILAKAERA 1982TIK AURRERA




Barnealdean, 1990 eta 1999. urteen bitartean 1000 pertsonatik 15 hil dira urteko, eta 8/9 sortu. Bertzalde, migrazio-saldoak ere bertzelako joera du barnealdean:

- Nafarroa Beherean, jende gehiago heldu bada ere, artekoa aski apala da (+365 pertsona) eta horrek ez ditu berezko saldoaren eskasteak (-1156) konpentsatzen;

- Zuberoan migrazio-saldoa txikiagoa bada ere, negatiboa izaten segitzen du.

G 8: MIGRAZIO-SALDOAREN BILAKAERA 1982TIK AURRERA



Herritiko ihesaren erritmoa murrizten ari da, baina galdu den biztanleria hein handi batez gaztea izan da. Honela 1975etik 1999ra bitartean, Nafarroa Behereak biztanleriaren %10,4 galdu zuen bitartean, 0-19 urtekoen galtzea %37,6koa izan zen; eta Zuberoan gazterien kopurua ia erdira (-%44,9) pasatu da, bere populazioa %17,1ko neurrian apalduz joan delarik.

**BARNEALDEKO BIZTANLERIA GAZTEAREN ETA OSOAREN BILAKAERA-TASAK
1975etik 1999ra (%)**

	0-19 urte	Orotara
Nafarroa Beherea	-37,6	-10,4
Zuberoa	-44,9	-17,1
Ipar Euskal Herria	-14,73	+15,14

Lehenago aipaturiko elementuek barnealdeko biztanleriaren zahartzea dakarte. 1999ko populazioaren egiturak 60 urte baino gehiagokoaren proportzio azkarra erakusten digu (%30 Nafarroa Beherean eta %33 Zuberoan), bertze lurraldeetan baino azkarragoa (%26,8 Lapurdin).

BIZTANLERIAREN BANAKETA ADIN-KLASEKA ETA LURRALDEKA (%)

	0-19	20-39	40-59	>60 urte	Orotara
Lapurdi	21,5	25,6	26,1	26,8	100
Nafarroa Beherea	20,3	24,8	24,9	30	100
Zuberoa	18,5	22,5	25,7	33,3	100
Ipar Euskal Herria	21,3	25,4	26	27,3	100

Bi hamarkada hauetan fenomeno berri bat gertatzen ari da barnealdean: "zentro-herrien"1 erakarpena. Fenomeno hau ez da Euskal Herriko berezitasun bat: mendebaldeko herri aberatsetako base-ri-eskualde frankotan gertatzen ari baita.

MIGRAZIO-SALDOAK 1990 ETA 1999 URTEEN ARTEAN

Kantonamendua	Migrazio-saldoa	Kantonamenduko hiri nagusia eta ingurunea (zentro-herriak)	Migrazio saldoa
Baigorri	+ 101	Baigorri, Ortaize Arrosa, Irulegi	+ 134
Donibane Garazi	+ 278	Donibane Garazi, Izpura	+ 320
Donapaleu	+ 156	Donapaleu, Behaskane, Arberatze	+ 172
Maule	- 46	Maule	+ 123
Atarratze	+ 25	Atarratze, Hiruri, Aloze	+ 72

Taularen irakurketa: 1990etik 1999ra:

- Mauleko kantonamenduak 46 pertsona galdu ditu eta Mauleko herriak 123 pertsona erakarri ditu;
- Atarratzeko kantonamenduak 25 pertsona irabazi ditu eta Atarratze, Hiruri eta Aloze herriek, 72 pertsona.

Eraitza hauek agerian ematen dute kantonamendu bakoitzeko herri kosko-rrenek jokatzen duten "hurrupatze"-zeregina. Alde batetik, kantonamendu kanpoko biztanleria, nagusiki herri horietara plantatzera baitator, eta bertzaldetik, eskualdeko herri txikiak biztanleria herri koskor horietara bizitzera baitoa.

Ondorioz kantonamenduko herri txikiak biztanleria galtzen duten bitartean, "zentro-herriek" jendetza irabazten dute.

Herri horiek hiriko bizimodua duen biztanleria erakartzen dute:

- Azpiegituren hobetzeak jendeari bertan bizitzeko ahalmena ematen dio, nahiz lana hirian egin.
- Zerbitzuen (eskola, saltegiak, posta...) eskasteak herri txikiak eta horien kokapena herri koskorretan, horrek erakartze-fenomenoa sortzen du, batez ere praktika sozial eta kultural berriak (janari, aisialdi, osasun-arloko kontsumoaren dibertsifikazioa) kontuan hartzen baditugu.

Azkenik, barnealdean bigarren etxebizitzaren eta etxe hutsen proportzioa orokorrean aski apala baldin bada ere, mendi eta mugaldekoko herrietan izaten duen garrantzia azpimarra daiteke.

Adibide gisa, Zuberoan bigarren etxebizitzek etxeen %13,2 ordezkatzen dute: Larraineko herrian ia erdia (%44,9) eta Santa Grazin %26,4.

ETXEBIZITZA-KATEGORIEN BANAKETA MENDI ETA MUGALDEKO HERRIETAN

	Bigarrenak	Hutsak	Bigarrenak+ Hutsak	Nagusiak
Bidarrai	13,4	18,1	31,5	68,5
Banka	20,6	3,7	24,3	75,7
Aldude	7,7	14,8	22,5	77,5
Urepele	2,3	28,6	30,9	69,1
Arnegi	22,9	6,9	29,8	70,2
St- Michel	15,4	11,1	26,5	73,5
Lekunberri	23,4	14,9	38,3	61,7
Nafarroa Beherea	11,3	9,2	20,5	79,5
Larraine	44,9	5,3	50,2	49,8
Santa Grazi	26,4	10,4	36,8	63,2
Zuberoa	13,2	7,8	21	79

BIZTANLERIA AKTIBOA

1. EMAITZA OROKORRAK

1982tik 1999rat IEHko biztanleria aktiboa (enplegudunak eta ofizialki lana bilatzen dutenen zama) %17 igo da.

a) Biztanleria aktiboaren emendioa biztanleria osoarena baino azkarragoa gertatu da.

Populazio aktiboa populazio osoa baino hein handiagoan emendatu da (+ %17 eta +%11, hurrenez hurren). Gaur egun 114.346 biztanle aktibo dira.

Bilakaeren desberdintasun hori handia bada ere, ez du eragin handirik populazio aktiboak populazio osoaren baitan izaten duen garrantzian. Honela 1982an 100 biztanletik 41 ziren aktiboak, eta 1999an 44.

Joera horrek bi azalpen nagusi ditu: alde batetik, mendebaldeko herri gehie-netan bezala gertatzen ari den biztanleriaren zahartzea, eta bertzaldetik, jende aktiboaren migrazio-saldo positiboa.

b) Jarduera-tasa gora doa, nahiz aski apala den.

1982an, 15 urte baino gehiagokoen jarduera-tasa %50,3koa zen eta 1999an %51,6koa.

Tasa hau aski apala da bertze lurraldeekin parekatuz. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-tasa %53,3koa da.

c) Populazio aktiboaren banaketa populazio osoak izan duen bilakaera bezalakoa izan da.

Lapurdik biztanle aktibo gehienak biltzen ditu (%85,6) eta 82tik aurrera kopurua %22,4 igo da. Kostaldeak Lapurdiko biztanle aktiboaren hiru laurdenak bildu arren, Lapurdi Barnealdeak aktiboaren kopuruaren emendio azkarragoa izan du (+%34,6). Lapurdin, 97.920 biztanle aktibo ziren 1999an.

Barnealdeak aldiz, hogei urtetan, 1.324 biztanle aktibo galdu ditu, eta kopurua 16.425erat pasatu da. Hala ere 1990etik galera emekitu da. Honela, Nafarroa Behe-reak biztanle aktiboak irabazi ditu Garazi, Baigorri eta Iholdiko kantonamenduetan.

	1982	1990	1999	82/90	90/99
BeheNafarroa + Zuberoa	17.749	16.588	16.425	-1161	-163

	Biztanleria osoa				Biztanleria aktiboa		
	1975	1982	1990	1999	1982	1990	1999
<i>kostaldea</i>	147.496	154.530	165.230	174.520	63.273	69.776	75.423
<i>barnealdea</i>	36.665	40.407	44.688	49.755	16.709	18.964	22.498
Lapurdi	184.161	194.937	209.918	224.275	79.982	88.740	97.921
Nafarroa Beherea	27.407	26.148	25.356	24.565	10.830	10.433	10.650
Zuberoa	16.247	15.404	14.367	13.471	6.916	6.155	5.775
Ipar Euskal Herria	227.815	236.489	249.641	262.311	97.728	105.328	114.346


	Biztanleria osoa			Biztanleria aktiboa		
	1982	1982-1990	1982-1999	1982/1982	1990/1982	1999/1982
kostaldea	100,0	106,9	112,9	100,0	110,3	119,2
barnealdea	100,0	110,6	123,1	100,0	113,5	134,6
Lapurdi	100,0	107,7	115,0	100,0	110,9	122,4
Nafarroa Beherea	100,0	97,0	93,9	100,0	96,3	98,3
Zuberoa	100,0	93,3	87,5	100,0	89,0	83,5
Ipar Euskal Herria	100,0	105,6	110,9	100,0	107,8	117,0

d) Sexuen arteko desoreka murrizten ari da

1982an desoreka nabarmena zen emazte eta gizonen artean, honela biztanleria aktiboaren %58,4 gizonezkoak ziren eta, emazteek %41,6 ordezkatzen zuten. Artekoa murriztuz joan da eta gaur egun gizonek %52,6 biltzen dute eta emazteek %47,4. Biztanleria jardunaren emendioa (%77,5) nagusiki emazteek eragin dute.

Bilakaera hori azaltzeko, mendebaldeko herrietako gizarteak izan dituen aldaketak aipatu behar dira: mentalitateen aldaketa, emazteen emantzipazioa eta ekonomiaren tertziarizazioa, bertzeak bertze.

G9: BIZTANLERIA AKTIBOAREN BANAKETA SEXUAREN ARABERA, 1982TIK AURRERA



e) Biztanle aktibo gazteen (15-30 urtekoak) kopurua murriztuz joan da, eta biztanle aktibo adintsuena (45-60 urtekoak) emendatuz.

	1990	1999	Bilakaera tasa 90/99)	Proportzioa bizt. akt. begira (1990)	Proportzioa bizt. akt. begira (1999)
15/30 urtekoak	28.193	23.850	- %15,40	%26,54	%20,80
45/60 urtekoak	28.022	38.169	+ %36,21	%26,38	%33,29

Iturria: INSEE, RP 1999

15-30 urteko biztanle aktiboaren kopurua %15ez murriztu da azken 10 urte hauetan, eta 45-60 urtekoena %36 emendatu da. 1990ean, adin-klase bakoitzak biztanle aktiboaren %26a biltzen zuen, baina gaur egun adin-klase zaharrena nagusitzen da (%33).

Kantonamendu batzuetan bilakaera horiek biziki sakonak dira. Alabaina, Atarratze-Sorholuzeko kantonamenduan biztanle aktibo gazteen kopurua %36 murriztu da eta zaharrena %10 handitu.


Egoera hau aski iluna da etorkizunari begira, eta lan-eskuaren defizitaren gaia pausatuko da Ipar Euskal Herrian etorkizun hurbil batean.

2. LANGABEZIA

a) Langabezia (biztanleria aktibo ez okupatua) azkarki emendatu da

1982tik 1999ra bitartean populazio aktiboa %17 igo bada ere, biztanle ez okupatuen (langabetuen) kopurua hein arras azkarrago batean emendatu da (+%47,3).

G10: LANDUNEN ETA LANGABETUEN BILAKAERA 1982TIK




Langabetuek populazio aktiboaren %10,3 ordezkatzen zuten 1982an eta %13 1999an (14.855 langabetu). Geroztik tasa hori etengabe txikituz joan da, 2000. urtean %10eko marra azpira pasatuz.

b) Langabezia-tasa azkarra hiri-inguruneetan

Langabezia-tasen esberdintasun handiak dira eskualdeen artean, Lapurdiko kostaldea gehien hunkituriko lurraldea delarik (%15,2).

G 11: LANGABEZIA-TASEN BILAKAERA 1982TIK AURRERA



Kostaldeak langabetuen %77,1 biltzen ditu, Lapurdi barnealdeak %14,5 eta Barnealde sakonak %8,4. Populazio osoaren pisu erlatiboa begiratzean, ohartzen gara langabetuen kontzentrazioa kostaldean goragokoa dela (langabetuen %77,1) populazio osoarena baino (biztanleria osoaren %66,5).

BIZTANLERIA OSOAREN ETA LANGABETUEN BANAKETA LURRALDEKA (%)

	1982		1999	
	Biztanleria osoa	Langabetuak	Biztanleria osoa	Langabetuak
Lapurdi	%82,4	%87,7	%85,5	%91,6
<i>kostaldea</i>	%65,3	%75,7	%66,5	%77,1
<i>barnealdea</i>	%17,1	%12,0	%19,0	%14,4
Nafarroa Beherea	%11,0	%7,4	%9,4	%4,5
Zuberoa	%6,5	%5,0	%5,1	%3,9
Ipa Euskal Herria	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: INSEE, RP 1999

Egoera hau azaltzerakoan, ez da pentsatu behar barnealdea egoera on batean denik enpleguaren aldetik; alderantziz, kostaldeak, lan-merkatua dinamika azkar batean denez, aktiboen jario handia erakartzen du, eta ondorioz sortzen den enpleguen kopurua ez da nahikoa izaten aktibo guztiak enplegatzeko.

Alderantzizkoa gertatzen da barnealdean: lansarituen enplegu-merkatua murrizten ari denez, gazteak kanpora joaten dira edota, ahal dutelarik, barnealdean gelditzen dira etxaldeen segida hartuz. Batzuk, barnealdean Frantziako bertze lurraldeetan gertatzen dena baino gazteen plantatze handiagoaz enplegu-dinamika eskasari lotzen zaie. Diotenez, guraso laborarien segida hartzen dute, bertze alternatibarik ez baitute tokian berean gelditu nahi badute.


Zuberoan, Maule-Lextarre kantonamenduko langabezia-tasa azkarragoa (%10) kantonamenduak duen ezaugarri industrialari lotzen zaio. Zapatagintzaren krisi larriak azkarki jo du Maule aldea, langabeziaren kopurua hanpatuz.

c) Emazteak gizonak baino gehiago hunkituak dira.

Herri garatu guztietan bezala, emazteak gizonak baino gehiago dira hunkituak langabeziaz. 1999an, 10 langabetuetarik ia 6 emazteak da. Emazteen langabezia-tasa %16koa da, gizonena %10ekoa delarik. 1990an, tasa horiek %16 eta %8koak ziren; beraz, gizonen egoera txartu egin da, emazteen langabezi-tasak altua izaten segitu duelarik.

Zuberoan, emazteek langabetuen %65 ordezkatzen dute. Tasa altu hau 80ko hamarkadan Zuberoak jasandako zapatagintza-industriaren krisiaren ondorioz kanporatu behar izan ziren langileak —emazte jostunak, bertzeak bertze— kontuan izanik azal daiteke.

G 12: LANGABETUEN BANAKETA SEXUAREN ARABERA 1999an



d) Langabezia-tasa altuak gazteen artean

LANGABEZIA-TASA 1999AN, ADIN-KLASEKA

	Batez bestekoa	15-24 urtekoak	25-49 urtekoak	50 urtekoak baina zaharragoak
kostaldea	15,2	31,3	14,6	11,3
barnealdea	9,5	21,1	8,7	7,4
Lapurdi	13,9	28,7	13,3	10,4
Nafarroa Beherea	6,3	16,9	5,6	3,8
Zuberoa	10,0	17,9	9,0	9,9
Ipa Euskal Herria	13,0	26,8	12,4	9,8


Iturria: INSEE, RP 1999.

Kostaldean zein barnealdean, gazteek dute langabezia-tasa gorena jasaiten. Honela langabezia-tasaren batez bertzekoa %13koa delarik, 15-24 urtekoena %27koa izan da 1999an.


e) Epe luzeko langabezia langabetuen erdia baino gehiagorentzat

Urte bat baino gehiagoko langabezia jasaiten dutenen proportzioak altua izaten segitzen du 1990etik aurrera: langabetuen erdia baino gehiago ordezkutzen du. Zuberoaren kasua azpimarratzen da: 1990an epe luzeko langabeziak okupatu gabekoak %40 hunkitzen bazituen, tasa hori %60ra heldu da 1999an.

G 13: 1990



G14: 1999



Iturria: INSEE, RP 99

3. BIZTANLERIA OKUPATUA (LANDUNAK)

Azken 20 urte hauetan landunen kopurua %13,5 (+11.848 landun) goratu da, azken hau 99.491 biztanle aktibo okupatuetara ekarriz. Enplegu-sortze garbi hori aski apala da langabeziak denbora berean izan duen gorakada ikusiz (+%47,3).

	Biztanleria aktibo okupatua			Langabetuak		
	1982	1990	1999	1982	1990	1999
kostaldea	55.642	60.369	63.963	7.631	9.407	11.460
barnealdea	15.498	17.221	20.352	1.211	1.743	2.146
Lapurdi	71.140	77.590	84.315	8.842	11.150	13.606
Nafarroa Beherea	100.88	9.666	9.979	742	767	671
Zuberoa	6.415	5.562	5.197	501	593	578
Ipar Euskal Herria	87.643	92.818	99.491	10.085	12.510	14.855

a) Beren herrian lan egiten dutenen kopurua murriztu egin da

Gero eta jende gehiago herritik kanpora doa lan egitera.

1982an, 10 biztanle aktibo okupatuetarik 6 beren herrian ari ziren lanean, gaur egun 4 dira horrela dihardutenak. Kasu erranguratsuen Lapurdi barnealdea da, 10etarik soilik 3k baitute beren herrian lan egiten; 2k Uztaritzeko kantonamenduan. Pentsa daiteke gainerako gehienak kostaldera doazela egunero lan egitera.

Bertzalde, 1982an, barnealdean 10 langiletarik 7 beren herrian lanean ari baziren, gaur egun soilik laupabertz ari dira horrela. Bilakaera hau lot daiteke laborantzaren galerarekin eta eskualdeko hiritroetan gertatzen ari den 3. sektoreko aktibitateen garapenarekin.

BIZI HERRIAN LAN EGITEN DUTENEN GARRANTZIA LANDUN GUZIEI BEGIRA, ETA HORREN BILAKAERA

	1982	1990	1999	Bilakaera, 82-99
Angelu	40,0	39,9	37,5	-15,6
Biarritz	63,1	57,2	48,9	-13,9
Baiona	71,5	65,9	59,4	-22,2
Ipar Baiona	27,6	25,5	18,6	-20,7
Hendaia	58,2	51,1	41,4	-10,0
Donibane Lohizune	60,1	52,2	44,8	-10,6
Hiriburu	21,6	20,6	13,6	-5,4
kostaldea	55,5	50,0	42,8	-11,4
Bidaxune	71,5	58,2	44,9	-23,8
Ezpeleta	64,6	51,3	39,5	-25,9
Hazparne	71,6	57,8	42,9	-36,4
Bastida	51,2	41,2	28,0	-27,2
Ustaritze	38,7	31,2	21,0	-15,1
barnealdea	56,5	44,3	31,8	-26,0
LAPURDI	55,7	48,7	40,1	-14,6
Iholdi	74,3	64,5	50,4	-36,6
Baigorri	75,0	64,4	47,3	-35,2
Donibane Garazi	68,7	58,6	45,7	-33,4
Donapaleu	66,9	58,9	40,2	-40,7
NAFARROA BEHEREA	70,5	61,0	45,0	-36,9
Maule-Lexarre	66,7	56,3	44,7	-44,9
Atarratze-Sorholuze	70,3	59,8	49,0	-45,9
ZUBEROA	67,6	57,2	45,7	-45,2
IPAR EUSKAL HERRIA	58,3	50,5	40,9	-20,3

Iturria: INSEE, RP 1999.

Kostaldean, Baionako kantonamenduaren kasua aipa daiteke, hor bizi diren 10 landunetarik 6k kantonamenduan bertan lan egiten baitute. Biarritzeko eta Angeluko kantonamenduetan proportzio hauek apalagoak dira (%49 eta %37,5, hurrenez hurren). Horrek, Baionak duen enplegu-dinamika erakarkorra erakusten du. Azken urte hauetan jendez azkar bete den Hiriburuko kantonamendua lortokia bertzerik ez dela erran dezakegu, landunen %86,4 egunero herritik kanpo lan egitera baitoaz.

Hendaia eta Ipar Baionako berezitasunak

Hendaian eta Ipar Baionan aipatzekoa da eskualde edo departamendutik kanpo lan egiten dutenen kasua.

Hendaian, eskualdetik kanpo ari direnen proportzioa %11koa da (%3,4koa kostalde osoan). Pentsa daiteke horietarik ainitz Gipuzkoara joaten direla egunero lan egitera, gipuzkoar ainitz baitira Hendaia eta Urrunaldean etxeak eraiki dituzte-nak.

Gisa berean, Ipar Baionako kantonamenduan, departamendutik kanpo ari direnen parte handia da (%20,7) kostaldeko egoerarekin parekatzen badugu (%5,7). Pentsa daiteke Bokaleko jendea, hurbil den eta lan-dinamika gorakorra duen hego Landetako eskualdera lan egitera joaten dela, egunero.

KOSTALDEKO LANDUNEN LANTOKIA


1999	Landunak	Bizi herrian (%)	Hiri unitatean (%)	Departamenduan (%)	DePART.rik kanpo eskualde berean (%)	Eskualdetik kanpo (%)
Angelu	13.862	37,5	52,6	2,3	5,7	1,9
Biarritz	9.957	48,9	40,9	3,5	4,2	2,6
Baiona	14.060	59,4	29,2	1,9	8,0	1,5
Ipar Baiona	2.544	18,6	70,0	-10,7	20,7	1,5
Hendaia	10.029	41,4	23,1	23,1	1,7	10,7
Donibane Lohizune	7.968	44,8	32,2	17,3	2,4	3,3
Hiriburu	5.543	13,6	75,5	2,0	7,5	1,4
Kostaldea	63.963	42,8	41,1	7,0	5,7	3,4

Iturria: INSEE, RP 1999.

b) Biztanle aktibo lansarituen nagusitasuna azkartu da

1982tik, Iparraldeak 15.182 aktibo lansaritu irabazi ditu (+%23,2) eta 3.334 aktibo independente galdu (-%15,0). Lansarituak aktiboaren %81 ordezkatzen dute (1982an, %74,6) eta independenteek beraz, aktiboaren %19 (1982an, %25,4).


G15: LANSARIDUNEN ETA INDEPENDENTEEN BANAKETA 1982TIK AURRERA



Egoera hau herri aberats anitzena bezalakoa da: ekoizpen-sistemaren aldaketak lansaristatze masi-boa ekarri du mende honen hastapenetik.

Barnealdean, laborantza eta ofizialgintzak pisu azkarragoa duenez, haien kontura ari direnen proportzioa azkarragoa da: Nafarroa Beherean %37,3 eta Zuberoan %30,6. Hala ere, lansaristatze-prozesua eritimo biziagoan jasan dute. Honela, 1982an, Nafarroa Beherean aktiboen erdiak baino gehiago (%54,3) bere kontura ari ziren, eta %40 Zuberoan. Kostaldean, aldiz, lansarizatuen nagusitasun azkarra (aktiboen %85) eskualdeak duen 3. sektoreko aktibitateen kontzentrazioari esker (administrazioak, osasun-zentroak, merkataritza...) uler daiteke.

G 16: LANSARIDUNEN ETA INDEPENDENTEEN BANAKETA 1999AN



c) Prekaritateak lansaridunen %16 hunkitzen ditu

Azken hamar urte hauetan horien kopurua %60 igo da, lansaridunen %10etik %16ra helduz, erran nahi baita 12801 enplegu prekario eraginez. Prekaritateak gero eta lansaridun gehiago hunkitzen ditu.

ENPLEGU EZ-EGONKORREN GARRANTZIA LANSARIDUNERI BEGIRA, 1990ETIK AURRERA

	Lansaridunak		Prekarioak		Enplegu prekarioen garrantzia (%)	
	1990	1999	1990	1999	1990	1999
<i>kostaldea</i>	50.925	54.582	5.452	8.664	%10,7	%15,9
<i>barnealdea</i>	12.742	16.132	1.200	2.363	%9,4	%14,6
Lapurdi	63.667	70.714	6.652	11.027	%10,4	%15,6
Nafarroa Beherea	5.216	6.257	404	1.128	%7,7	%18,0
Zuberoa	3.597	3.606	368	646	%10,2	%17,9
Ipar Euskal Herria	72.480	80.577	7.424	12.801	%10,2	%15,9

Iturria: INSEE, RP 1999.

Enplegu prekarioen artean, iraunpen mugatuzko kontratuak³ nagusitzen dira (%58,6). Enplegu lagunduen partea (%16,8) ere azpimarra daiteke. Estatu frantsesak enplegu horiek epe luzeko langabetuen kontratazioa bultzatzeko ("Contrat Emploi Solidarité") sortu ditu, baita berrikitan gehien hunkituak diren gazteen enplegua⁴ sustatzeko.


ENPLEGU PREKARIOEN OSAKETA

1999	Enplegu prekarioak	Iraunpen mugatuzko kontratuak	Aprendizak	Interim agentzien bidezkoak	Enplegu lagunduak (CES, gazte-enpleg.)	Ikastaldietako enpleguak
kostaldea	8.664	%58,9	%8,1	%12,4	%16,4	%4,3
barnealdea	2.363	%57,0	%12,7	%11,3	%15,7	%3,2
Lapurdi	11.027	%58,5	%9,1	%12,1	%16,2	%4,0
Nafarroa Beherea	1.128	%60,6	%9,0	%5,3	%19,0	%6,1
Zuberoa	646	%57,1	%12,4	%3,7	%22,9	%3,9
Ipar Euskal Herria	12.801	%58,6	%9,2	%11,1	%16,8	%4,2

Iturria: INSEE, RP 1999.

d) Banaketa orekatuagoa gizon eta emazteen artean

Landunen artean, gizon eta emazteen arteko oreka handiagoa nabari da. Horrela, 1982an 10 landunetarik 6 gizonak baziren, gaur egun parekotasunetik hurbilago gara.



3. JARDUERA EKONOMIKOA

AITZINABISUA

Iparraldean, berezko instituzio administratiborik ezak edozein ikerketa zailtzen du. Honela, analisi ekonomikoak egiteko, emaitzak arras urriak dira eta gutxitan gaurkotuak. Eskuragarri ditugun bakarrak biztanleria aktiboari eta enpresei buruzkoak dira; baina ez dago ia elementurik BPG edota fluxu finantziarioei buruz. Arrazoi horiengatik aurkezpen honek jarduera ekonomikoaren errealitatearen parte bat baizik ez du erakusten.

1. JARDUERA EKONOMIKOAREN AURKEZPEN OROKORRA

a) Enpresa txikiko ekonomia


Ipar Euskal Herriko paisaia ekonomikoaren ezaugarri nagusi bat: sektore merkataleko eraikuntzen neurri murrirtza.

10 enpresatarik 9 baino gehiagok 10 langile baino gutxiago ditu (%95,1 IEH-an eta %91,4 Frantzia).

Enpresa arras tikiak dinamikoenak dira. Honela, langilerik gabeko enpresek parkearen 2/3-a osatzen dute eta horiek dira gehien hazi, kopuruz (+5334) zein proportzioz (+%53).

Sortu diren enpresen %98,7 20 langile baino gutxiagokoak dira eta %84,4 langilerik gabekoak.

ENPRESA KOPURUAREN BANAKETA, LANGILE KOPURU TARTEKA




Iturria : Sirene-Insee

ENPRESA KOPURUAREN BILAKAERA HANDITASUNAREN ARABERA

	1995	2001	Bilakaera (%) 1995-2001	Bilakaera absolutua	Proporzioa (%) 1995	(%) 2001
0 langile	10236	15570	52,1	5334	52,98	60,74
1-9 langile	7999	8807	10,1	808	41,40	34,36
10-19 langile	572	661	15,6	89	2,96	2,58
20-49 langile	359	417	16,2	58	1,86	1,63
50-499 langile	148	173	16,9	25	0,77	0,67
> 500 langile	5	6	20,0	1	0,03	0,02
OROTARA	19319	25634	32,7	6315	100,00	100,00

b) Zerbitzuen nagusitasuna


IPAR EUSKAL HERRIKO LANDUNEN BANAKETAREN BILAKAERA, SEKTOREKA, (1990-1999)



Iturria: INSEE, RP 99


Herri kapitalista zahar gehienetan gertatzen ari den fenomeno berbera dugu Ipar Euskal Herrian ere, alegia, 1. eta 2. sektoreko enpleguaren murrizketa eta 3. sektorekoaren emendio azkarra. Bertzalde, ondoko grafikoak erakusten duen bezala, zerbitzuen kontzentrazio handia dago Ipar Euskal Herrian, eta industriari doakion enpleguaren partea arras apala da, bereziki Hego Euskal Herriko lurraldeekin konparatuz.

LANDUNEN BANAKETA SEKTOREKA ETA LURRALDEKA, 1999AN



Iturria: INSEE, RP 99. BBV fundazioa

IPAR EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN BANAKETA KSPAREN ARABERA, 1982TIK AURRERA




Iturria: INSEE, RP 1999.

Sailkapen honek sektoreen bereizketa zuzena aurkezten ez badu ere, informazio interesgarri batzuk agerrarazten ditu. Hirugarren sektoreko kategorien nagusitasun gorakor argia (enplegatuak, ararteko lanbideak, koadroak eta goi-mailako lanbide intelektualak, ofizialeak, merkatariak, enpresa-buruak) erakusten du, baita laborari esplotatzaileen kopuruaren murrizketa handia ere.

Lapurdiko kostaldean, aise nagusitzen dira hirugarren sektoreko jarduerak. Nafarroa Beherean, laborantzaren garrantzi berezia aipa daiteke, eta Zuberoan, laborantzaz gain, industriaren presentzia agerrarazten duen langileen kategorien proportzio handia.

KATEGORIA SOZIO-PROFESIOALEN BANAKETA LURRALDEKA, 1999AN




Iturria INSEE, RP 1990.

Emazteak hirugarren sektorearekin zerrikusia duten lanbidetan ari dira nagusiki. Hala ere enplegu horiek ez dira baitezpada kalifikazio handikoak. Honela enplegatuen %75 ordezkaten badute, koadro eta goi-mailako lanbide intelektualen %30 baizik ez dute osatzen.

2. JARDUERA NAGUSIEN EZAUGARRIAK

a) Laborantzaren erresistentzia

IEHKO ETXALDEEN KOPURUAREN BILAKAERA 1955ETIK 2000RA BITARTEAN



Iturria: RGA, 2000

Mendebaldeko herrietan XX. mendea laborarien eta etxaldeen kopuruen murrizketaren mendea izan da. Ipar Euskal Herrian ere, fenomeno hori argi ikusi da. Horrela, 1955tik 2000ra bitartean etxalde-
deen erdia desagertu da. Azken hamarkada honetan kopurua %15,8ko neurrian apaldu da. Gaur egun 5.939 etxalde dira Ipar Euskal Herrian.

Beharakada hori azkarra izan bada ere, hurbileko eskualdea den Biarnok oraindik emaitza larriagoak izan ditu (-%26,5); gauza bera Akitania Eskualdeko emaitzen aldetik (-%27,6).


	1955	1970	1979	1988	2000	1970-00	1988-00
IEHko etxalde-kopurua	11.353	8.877	8.468	7.111	5.989	-%32,5	-%15,8
					Akitania	-%53,7	-%27,6

Beraz, euskal laborantzak hobeki ihardokitzen du, nagusiki segiden hartzeak hobeki segurtatuak direlako. 1988an 55 urte baino gehiagoko laborarien %41ek zioten segitzaile bat bazutela, proportzio hori %27koa zelarik Frantziako Estatuan.

Segida-hartze horiek azal daitezke tradizionalki euskaldunek familiaren ondareari dioten atxikimenduarekin: haurridetarik batek etxaldearen segida hartu behar du, familiako baserria eta bere lurak baturik atxikitzeko. Hala ere, zabaltzen ari diren hiriko bizimoduek, ohitura horien aldaketa dakarte, hainbaten etxalde-
en etorkizuna zalantzan ezarritik. Alabaina, lurren zatiketek etxalde-
en eremuan murrizketa eragin lezakete, ez gehiago bizikorrek bihurtuz.

Segida horien hartzea azal daiteke, halaber, eskualde horietako bertze jarduerak ekonomiko-
en eska-
siatik. Laborantza, beraz, ezinbertzeko hautua bilakatzen da "herrian" gelditu nahi dutenentzat.

ETXALDEEN KOPURUAREN BANAKETA ESKUALDEKA, 1979TIK AURRERA



Iturria: RGA, 2000

Etxaldeen kopuru handiena Lapurdi barnealdean eta Nafarroa Beherean dago. Lapurdi Barnealdearen kasuan, laborantza arazo nagusi bat ezagutzen ari da: kostaldetik hedatzen ari den hiria. Lur-presioa gero eta handiagoa da, eta tentazioa da lehen laborantzarako baliatzen ziren lurra eraikitor bihurtzea, ondoren garestiago saltzeko.

Lapurdi barnealdean pluriaktibitate handiagoa dago Zuberoa eta Nafarroa Beherean baino.

LABORARI NAGUSIEN BANAKETA, ADIN-TARTEKA, 2000AN (%)

	<40	40-54	>55
Ipar Euskal Herria	29	43	28
Biarno	27	43	31
Akitania	23	43	34


Iturria: RGA, 2000

Ipar Euskal Herrian gazteen proportzioa (40 urte baino gutxiagokoak) Akitania eskualdean baino apalagoa da. Biarnon, aldiz, proportzio berdintsuak dira.


Ondoko grafikoek erakusten duten bezala, gazteen proportzioa handitu egin da 1979az gerotik, baina erretretaren adinaren apaltzeak eta aitzin-erretretarako harturiko neurriek azaltzen dute fenomeno hori, hein handi batez.

Nafarroa Behereak gazteen proportzio handiena biltzen du (%27). Lapurdiko kostaldean, aldiz, etorkizuna aski iluna da: laborarien %55ek 55 urte baino gehiago ditu, eta gazteen proportzioa %10era mugatzen da.

LABORARI NAGUSIEN BANAKETA, ADIN TARTEKA ETA LURRALDEKA 1979



2000




Iturria: RGA,2000

Laborarien heziketa-maila gora doa: 1970 eta 1988. urteen bitartean, gutxienez bigarren mailako formazioa duten laborarien kopurua sei aldiz biderkatu da.

Laborarien inplikazio azkarra sindikatuetan (FDSEA eta ELB) ere aipa daiteke. Azken hauteskundeetan berezko Lanborantza-Ganbara baten aldeko kanpaina aktiboa egin duen ELB sindikatuak Ipar Euskal Herriko gehiengo lortu du, departamenduan minorian izanik ere. FDSEA sindikatuak nagusi izaten segitzen du Paueko erakundeetan.

LUR-EREMU BALIATUA ETXALDEKA, 1970ETIK 2000RA BITARTEAN



Iturria: RGA,2000

Oro har, Ipar Euskal Herriko etxaldeak txikiak dira: 23 hektarea batez bertze; auzoko Biarnon 25 hektarea dira. 1988an Frantziako Estatuko etxaldeen batez bertzekoa 28 hektareakoa zen. Hau azal


daiteke Ipar Euskal Herriak duen kokapen geografikoagatik. Alabaina, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko iparraldean zelaiak badaude ere, laborantza mendialdean kokatzen da nagusiki.

	Lur-eremu baliatua					Lur-eremu baliatua etxaldeka			
	1955	1970	1979	1988	2000	1970	1979	1988	2000
IPAR EH	167.397	115.458	122.561	117.793	136.979	13	14	17	23
Biarno	...	223.305	222.424	220.966	219.446	14	16	19	25
Akitania	1.590.194	1.542.006	1.473.396	...	16	20	26
					Frantzia	19	...	28	...

Txikiak izanik ere, etxaldeetako lur-eremua handituz joan da, bikoiztuz 1970etik hona. Bi azalpen eman ditzazkegu: alde batetik, Mendebaldeko herri gehienetan bezala, etxaldean kontzentrazio-fenomenoa, eta bertzaldetik, lur berrien egokitzea laborantzarako, azken azalpen hau argiena delarik. Honela, 1955eko heina lortzen ez bada ere, laborantzarako baliatzen den lur-eremua %19ko heinean zabaldu da. Denbora berean, Biarnon eremua doi bat murriztu da.

Hurbilagotik so eginez, lur-eremu iraulgarria handitu egin da, eta belarretako baliatua dena mantendu da, azkarki murriztu delarik Biarnon.

LURRAREN BALIAPENA 1997TIK



	iraulgarria/ lur-eremu baliatua			belarra/lur-eremu baliatua		
	1979	1988	2000	1979	1988	2000
Ipar EH	%24	%28	%35	%75	%71	%64
Biarno	%60	%62	%74	%38	%36	%24
Akitania	%54	%58	%64	%35	%31	%24

Lurra, belarretarako baliatua da nagusiki.

Taula honek argiki erakusten du Ipar Euskal Herriak duen berezitasuna, Akitaniako eskualdearekin zein hurbileko Biarnorekin begira. Alabaina, azken biek beren lurra nagusiki laborantzarako baliatzen badute (%64 eta %74), Ipar Euskal Herrian, parte handiena belarretako baliatua delarik, erran nahi baita hazkuntza-rako (%64).

Hona hemen 1988an egin sailkapenak erakusten dituen laborantza-motak eskualdeka:

Kostaldea	Mendi zola	Mendialdea
1. abelgorri esnedunak	1. ardi esnedunak	1 ardi esnedunak
2. loregintza	2. abelgorri esnedunak	2. haragi-abelgorria
3. baratzegintza	3. haragi-abelgorria	3. abelgorri esnedunak

Ardien kopurua gora doa. 1970 eta 1988. urteen bitartean %70ko neurrian emendatu da, arazoak pausatuz etxaldean eremu txikiegiak behartzen dituen lur komunak baliapena kudeatzeko.

Bidaxune eta Donapaleu aldeko jarduera nagusia, lehia gorakorra jasaten duen hazi-artoaren inguruan da.

Oro har, Ipar Euskal Herriko laborantzak diru-laguntzen behar gero eta handiagoa du. Mendi-indemnitazioa errenta osagarri arras garrantzitsua bilakatu da etxalde frankoren biziraupenerako. 2000. urtean departamenduan egindako inkestak diru-laguntzen partekatze desorekatua erakusten du Biarnoko eta Ipar Euskal Herriko eskualdeen artean. Alabaina, departamenduko plantatzeen erdia eta etxalde-buruen %39 ordezkaturik ere, Ipar Euskal Herriak diru-laguntzen %29 baizik ez du eskuratzen.

Etorkizunari begira eta konklusio gisa, hona hemen 1993an Euskal Herria 2010 prozesuaren kariaz egindako txostenaren pasarteak:

Datorren urteetan ardi esnedunen nagusitasuna azkartuz joanen da ondoko arrazoiengatik:

- mendi-eskualde batean kokatuak baikara,
- etxaldeen handitasun txikia baitute,
- artoaren prezioa behera baitoa,
- hazkuntzako primek konpentsazio handiagoa ematen baitute,
- esne-kuotarik ez baita ardi esnearen kasuan,
- laborantza-politika komunak nagusiki abelgorriak eta zituak kolpatzen baititu,
- bazka-produkzioak garrantzitsuak baitira (baliaturiko eremuaren %75).

Ardi-esnea arriskuan baldin bada, Ipar Euskal Herriko laborantza da lanjeran. Alta, gerta daitezke gaur egungo laborantza-politika komunak gero eta laborari gehiago honako laborantza-motara bultzatzea, bai Ipar Euskal Herrian eta bai eskualdean ere. Beti bezala, lehia mehatxu garrantzitsuenetarikoa bat da. Ekoiz-penaren balorazioerako erabiltzen den gazten lortzeko transformazioak kalitatearen axola eta jatorria erakusten dituen promozio-politika eduki behar du.

Axola hori ezinbertzekoa da, halaber, gizenaren edota akuakulturaren arloetan. Arloaren produktioaren emendioak segitu behar luke (Irulegi Jatorri Kontrolatu Izendapena, AOC), merkatua ez baita agortua, ezta urrundik ere. Bertzalde, Baionako Xingarrak lortu duen Jatorri Babestuaren Izendapenak (IOP) zerri arloaren garapena ekar lezake.

b) Arrantzaren galera

Ipar Euskal Herrian


Hiru portu daude Ipar Euskal Herrian: Donibane Lohizune-Ziburukoa 178 arrantzalerekin (78 kostatik hurbil ari dira eta 90 itsaso zabalean), Hendaiakoa 30 marinelekin eta Baionakoa hurbileko arrantzan ari diren 30 arrantzalerekin. Bertzalde, Dakar (15 arrantzale), Landetako Capbreton (60 arrantzale) eta batez ere Baionako eskualdeari "frantses-espainolak" deitzen zaien 50 itsasontzi (330 arrantzale). Guztira ari diren 675 arrantzaletarik %50 baino gehiago Ipar Euskal Herriatik kanpo bizi dira.

Puntu baikorrak

1999an, arrantzale-mota berriak eta arrantza-tekniken aniztasunak Donibane-Ziburuko portua biziartzen dute. Azpiegiturak onak dira: enkantea, kaia, tresneria... Lekuko formakuntza kalitatekoa da

eta gazteek bizi-kalitatearen hein minimoa segurtatuko lukeen arrantza "iraunkorrea" abiatzeko gogoa dute.


LEHORRERATURIKO ARRAIN-MOTA NAGUSIAK 2000AN



Iturria: CCI Bayonne Pays Basque

Bertzalde, beherakada izugarri baten ondotik (-%40, 1993tik 1996ra bitartean) arrainaren batez bertzeko salmenta-prezioa gora doa (+%92 1996az geroztik), nahiz oraindik apala den.

BATEZ BERTZEKO PREZIOAREN (KILOKA) BILAKAERA



Iturria: Direction interregionale des affaires maritimes Poitou-Charentes-Aquitaine-INFOMER / CCI de Bayonne Pays Basque 2001

Puntu ezkorrak


60ko hamarkadako 1.200 arrantzaleetarik 300 baizik ez dira gelditzen gaur egun.

Itsasontzi-parkea zahartzen ari da. Azken 6 urte hauetan 2 itsasontzi berri bakarrik eraiki dira. Arrantzaleak berak ere zahartzen ari dira.

Hendaiaiko enkantea desagertu egin da. Hori azken urte hauetan izandako emaitza beherakorren-gatik azal daiteke, kantitateetan zein balioetan ere.

ENKANTEAN LEHORRERATURIKO ARRAINA (TONAK) 1995ETIK AURRERA

	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	1993-2000
Donibane Lohizune	5.909	5.204	6.205	4.437	5.070	4.553			
Hendaia	4.235	4.572	4.589	5.939	3.425	2.257			
Ipar Euskal Herria	10.144	9.776	10.794	10.376	8.495	6.810	5.349,6	7.222	-%29



1993tik arrantzaturiko kantitatea %29ko neurrian gutxitu da. Donibane Lohizuneko portuak arrain-kantitate handiena jasotzen du: Hendaia baino bi aldiz gehiago.

ENKANTEAN LEHORRERATURIKO ARRAINAREN BALIOA (MILA LIBERATAN) 1995ETIK

	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	1993-2000
Donibane Lohizune	70.874	51.222	59.937	39.336	53.000	55.500			
Hendaia	48.802	47.592	44.790	31.397	27.400	14.500			
Ipar Euskal Herria	119.676	98.814	104.727	70.733	80.400	70.000	65.042,1	94.311	-%21



Iturria: Direction interregionale des affaires maritimes Poitou-Charentes-Aquitaine-INFOMER / CCI de Bayonne Pays Basque 2001

Arrantzaren diru-iturri ziurrak diren kontserbategiak ere osoki desagertu dira. Donibaneko enkan-tearen salmenten balioak izugarritzko beherakada jasan du (erdia baino gehiago 10 urtez).

Lehengaita desagertze-arrisku larria da, deus axola duen arrantzarengatik (arrain txikiak biltzen baitira berdin-berdin), sare-kopuru handiegiagatik eta kutsadurarengatik, bertzeak bertze.

Koherentzia eskasa nabari da erabakiak hartzen dituzten egituren artean (Kontseilu Orokorra, Industria- eta Merkataritza-Ganbara, Estatu Frantsesa, Europa). Arazo bera sumatzen da arrantzaleen artean.

Kontzentrazioa handia da: 8 itsasontzik (50 arrantzalek) boterearen %60 dute.

Bestalde, ekoizleek Donibaneko enkan-tearen kontrola galdu dute. 1992an Frantzia eta Espainiaren artean bokartari buruz eginiko hitzarmenak kalte handiak ekarri ditu Ipar Euskal Herrian (%30 inguru-galtzeak). Gazteek ez dute aparteko laguntzarik instalatzeko mementoan. Lankidetzat txikitzen ari da.

Frantziako estatuko portu frankoentzat bezala, balantza idorra da: arrantza hiltzorian da. Arrantzale aintz ez dira gehiago arrantzaz bizitzera heltzen. Ipar Euskal Herriko egoera orokorki bertze portuena baino txarragoa da.

Hego Euskal Herrian

Emaizak: 3500 arrantzale, horietarik 2000 arrantza artesauan direnak (antxoia, atuna...) eta 1000 itsas zabalean (arrastea eta sare zuzenak), munduko itsasoak zeharkatzen dituzten eta Euskadira negozio-zifren erdia ekartzen duten 50 atunketari izoztaile eta arrastaketari.

EAEk aldeko baikor eta azkarrak ditu: Espaniar Estatuko "freskoaren" merkatua, Gasteizko gobernuaren nahi azkarra (arrantzaren kudeaketan), kofradien indarra, sektore pribatuaren inbertsioak, kontserbategien mantenua (enpleguaren %50 Bermeon).

Baina Europako Batasunean kokatua den geroztik, Hondarrabia eta Getariako kasuak ez ezik, arrantzaleen kopurua nabarmenki apaldu da: 1986an, 745 ontzi baziren, 1999an, 400 baizik ez. Hala ere, ontzidiaz dextente berritua (35-40 metroko ontziekin) eta ekipatua da. Dena den, baldintza gogorrek gazteen gogorik eza ekartzen dute segida hartzeko.

Egoera orokorra

Euskal Herriko arrantza-eremuak arras txikiak dira eta lehengai pobretu egin da.

Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean elkarren arteko harremanak biziak izateko orde, ofizio desberdinen gatazkak nagusitzen dira.

Bertzalde, Euskal Herria ez da Europako Batasunak laguntzen dituen eskualdeetan sartua izan. Gasteizko gobernuak Hego Euskal Herriko arrantza hein handian laguntzen badu ere, Ipar Euskal Herriak ez du holako berezko instituziorik laguntza finantzarioak jasotzeko.

Munduan zehar sektore agroalimentarioa, munduko merkatuaren (OMC), teknologiaren aitzina-mentuaren eta errentabilitatearen menpe dago. Hala ere, herri aberatsetan ingurumenari eta lehengaiari buruzko errespetua handitzen ari da, eta proteina natural gisa baieztatua den arrainaren balio nutritiboak perspektiba berri baikor batzuk ekar litzake.

c) Azpi-industrializazioa eta eraikuntza-sektorearen garrantzia

Atal honen burutzeko, emaitza arras eskasak lortu izanik, aterabide zuhurrena izan da, 1993an Euskal Herria 2010 prozedurak izenpean egindako txostenaren edukia aurkeztea. Analisi horrek, nahiz 1975etik 1990erako garaian oinarritu, gako baliagarriak ematen ditu azken hamarkada honetan izandako joerak ulertzeko, frankotan 80ko hamarkadan abiatutakoak baitira.



c1. Industria

INDUSTRIA-SEKTOREKO ENPLEGU-BANAKETA 1975ETIK AURRERA

	1975	1982	1990	1999	Adarren garrantzia	Bilakaera 75-99
Hazkurria eta laborantza-industriak	2.720	2.344	2.672	2.919	%20,7	%7,3
Energiaren ekoizpena eta banaketa	785	720	932	801	%5,7	%2,0
Bitarteko ondasunen industriak	2.960	3.776	3.224	3.840	%27,2	%29,7
Ekipamendu-ondasunen industriak	3.485	3.748	4.788	3.580	%25,4	%2,7
Kontsumo-ondasunen industriak	5.645	4.488	3.524	2.955	%21,0	-%47,7
Industria orotara	15.595	15.076	15.140	14.095	%100,0	-%9,6
Sektorea orotara	80.415	77.940	91.336	98.652	%14,3	%22,7

1999an industriak IEHko enpleguen %14,3 biltzen ditu. Emaizta hau apala da Hego Euskal Herriarekin konparatuz (%30). 1975etik enplegu orokorra %22,7ko heinean igo bada, industriako enplegua %9,6koan murriztu da. Apaltze handiena azken hamarkada honetan gertatu da, 1.500 enpleguetarik 1000 galdu baitira.

INDUSTRIA-SEKTOREKO EGITURAREN BILAKAERA 1975ETIK AURRERA



Sektoreko egituraketari so egitean, aparteko espezializaziorik ez dela ohar gaitezke. 1975etik aurrera kontsumorako ondasunen garrantzia murriztu egin da, eta bitarteko ondasunena doi bat azkartu.

Hona hemen Euskal Herria 2010 txostenaren karietarat emandako azalpenak


Zapatagintzaren galera eta sektore elektriko eta elektronikoaren gorakada.

1975 eta 1990. urteen bitartean industria-sektoreak 450 enplegu galdu ditu. Galtze hori handia, ez bada ere berezitasun franko ditu:

- Kontsumorako ondasunen industriak 2.000 enplegu baino gehiago galdu ditu zapatagintzaren jardueraren galeragatik. 1975ean lehen adar industriala zen: garai hartako 100 enpleguetarik 30 soilik gelditzen ziren 15 urte geroago.
- Ekipamendurako ondasunen industriak 1.300 enplegu sortu ditu 15 urtetan. Emaitza on hauek zor dizkiegu etxerako ekipamenduzko ondasunen fabrikatzeari, baina bereziki eraikuntza elektriko eta elektronikoari (informatikarako eta bulegoko materiala, material elektrikoa eta elektronikoa: igogailuak, pilak, telefonoak, osagaiak, industriarako neurgailuak edo automaziorako gailuak, ikus-entzunezko materiala). 1975ean ia existitzen ez ziren bi adar hauek Ipar Euskal Herriko adar ekonomikoen hazkunde azkarrena ezagutu dute: 1.500 enplegu zituzten 1990ean. Ekipamendurako ondasunen industria IEHko adar handiena bilakatu da. Goratze horrek itsas ontzigitza, aeronautika eta armamenduko enplegu galtzeak (-%11, 15 urtetan) konpentsatu ditu.
- Bitarteko ondasunen industria (metalak, meak, eraikuntzarako materiala, kimika, burdingintza, papera, kartoia, kautxua) aski egonkorra da, laborantza zein hazkurria-industria bezainbat.

Haragi- eta esne-industrien garape-nak bertze laborantza- edo hazkurri-industrietan izan diren galtzeak konpentsatzen ditu”.

ENPLEGU-BANAKETA INDUSTRIAN, LURRALDEKA, 1999AN




Iturria: RP, 1999

Industria-sektoreko enplegua nagusiki Lapurdiko kostaldean dago, enpresa gehienak hor kokatzen baitira. Hala ere, Zuberoako egoera azpimarra daiteke. Hain zuzen, Zuberoako biztanleriaren %5 biltzen badu ere, industriako enpleguen %8 du. Maule aldean industria txiki bat garatu da zapata-gintzaren inguruan, eta jarduera hori krisian bada ere, kautxuarekin zerikusia duten hainbat jarduera sortu dira.

Bertzalde, Nafarroa Beherean laborantzarekin loturiko jardueraren garrantzia aipa daiteke, eta lurralde honetan laborantzak duen toki garrantzitsuari esker ulertzen da.

INDUSTRIA-ADARREN BANAKETA, LURRALDEKA



Iturria: RP, 1999

Ipar Euskal Herriko industria kanpoaren menpe dago

Ipar Euskal Herriko lehenengo 19 enpresetarik 13k beren egoitza soziala Euskal Herrikan kanpo dute, eta nazioarteko dimentsioa duten talde handien eskuetan daude. Industria elektriko eta elektronikoa bultzatu duten industrietan ongi erakusten dute egoera hori: Sony (2000. urtean RUWEL nazioarteko taldeak erosi eta berregituratze-erabaki baten ondotik itxi dena), SAT, Telerad. 1990an “kanpoko” sozietate horiek bertako industriako langileen %32 biltzen zuten, eta azpitratamendurako enpresa andanetan jarduera bultzatzen zuten (240 enpresa eta 3.400 enplegu). 2001. urtea eta 2002. urtearen hastapena guztiz ilunak izan dira Ipar Euskal Herriko industriarentzat. Honela, Mauleko Etchandy espartin egilearen eta RUWEL enpresaren ixteak aipa daitezke, bide berean Mauleko Gema enpresa ixteko arriskuan dago bai eta ADA zein SAFAM enpresetan langile zenbaiten kanporatzeko asmoak ere agertu dira. Enpresa horietako enpleguak jokoan izateaz gain azpikontratatzailerik andanetan biziraupena kolokan ezarri da.

INDUSTRIA HANDIENAK, ENPLEGUAREN ARABERA SAILKATUAK (2001)

Sailkapena	Enpresak	Herria	Jarduera nagusia	Langile-kopurua
1	Dassault aviation SA	Biarritz-Angelu	Aeronautika	1.174
2	Bonnet Névé-Bonnet réfrigération	Hendaia	Hozkailu- material profesionala	550
3	NA PALI SA Quick Silver	Donibane Lohizune	Kirol eta aisialdiatarako jantziak	450
4	Ruwell	Baiona	Zirkuitu inprimatuatarako euskarriak, osagaiak	404
5	Signature SA	Urruna	Bide- eta hiri-seinalaketa	366
6	Sagem SAT- S.A. de télécommunications	Mugerre	Telekomunikabideatarako materiala	300
7	Acierie de l'Atlantique ADA	Bokale	Burdinola elektrikoa	260
8	Sokoa	Hendaia	Bulegoetako altzairu-ekoizpena	218
9	Société lyonnaise des Eaux (Pays Basque)	Biarritz	Ur-horniketa	208
10	SAFAM fonderies et ateliers de Mousserolles	Baiona	Urketa	207
11	B. Braun	Donibane Lohizune	Gai sintetiko zeko itzirikiko medikuntza-objektuak	200
12	Plastitube SA	Baiona	Gai plastikozkoen transformazioa	180
13	Lur Berri	Aiziritze	Hazkurri-koperatiba taldea	142
14	Telerad SA	Angelu	Aeronautika eta telekomunikabide-materiala	107
15	Pyrénées from Société des caves	Larزابale		103
16	Fromagerie des Chaumes	Bildoze	Gaztak	100
17	Salines Cerebos et de Bayonne	Mugerre	Kontsumorako gatza Zuren babesa	65

Iturria: Baiona, Euskal Herriko MIG


c2. Eraikuntza

Eraikuntzaren sektorea aski azkarra da, baina harreman arras hertsia du koiunturarekin.

ERAIKUNTZAREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN BILAKAERA 1975TIK AURRERA

	1975	1982	1990	1999	Garrantzia, enplegu mailan 1999	Bilakaera 1975-99
Eraikuntza, laborantza eta ingeniaritza zibila	8.225	7.508	7.612	6.608	%6,7	-%19,7
Sektorea guztira	80.415	77.940	91.336	98.652	%100,0	%22,7s

ERAIKUNTZA, LABORANTZA ETA INGENIARITZA ZIBILAREN SEKTOREAREN BILAKAERA 1975ETIK AURRERA



Iturria: RP, 1999


Enplegua behera badoa ere (-%20), eraikuntza-sektoreak toki garrantzitsua du Ipar EHan. 1999an, 6.608 enplegu ditu, hots, enpleguen %6,6 (laborantza, arrantza eta oihangintza bezainbat). Hala ere, proportzio hori behera doa, 1975ean enpleguen %10 baino gehiago biltzen baitzuen.

d) Hirugarren sektoreko nagusitasuna

Atal honen burutzeko, emaitza arras eskasak lortu izanik, aterabide zuhurrena izan da, lorturiko emaitza gaurkotuzgain 1993an Euskal Herria 2010 izendapenez egindako txostenaren edukia aurkeztea. Analisi honek, nahiz 1975etik 1990erako garaian oinarritu, gako baliagarriak ematen ditu azken hamarkada honetan izandako joerak ulertzeko, frankotan 80ko hamarkadan abiatutakoak baitira.

Ipar Euskal Herrian, bertze eskualdeetan bezala, hirugarren sektoreak toki gorakorra du ekonomian. Alabaina, 25 urte hauetan enplegu orokorra %22,7ko heinean emendatu da eta denbora berean 3. sektorearena %63,3koan. Parte erlatiboak sektore honek duen garrantzia ongi erakusten du; hain zuzen, enpleguaren %72,6 biltzen du Ipar EHan (71667 enplegu), %59 EAEn eta %53 Nafarroa Garaian.


HIRUGARREN SEKTOREKO ENPLEGU-EGITURAREN BILAKAERA 1975ETIK AURRERA



Iturria: RP, 1999

Sektore horretako enpleguaren gorakada, bereziki gizabanakoei hornitzen zaien merkataritza-zerbitzuetan eta, hein apalago batean, xehekako merkataritzako adarretan ikusten da. Ipar Euskal Herriaren berezitasun turistikoa eta adineko biztanleriaren (partikularrei hornituriko merkataritza-zerbitzuen kontsumoa) presentziak zeregin nabarmena izan dute gorakada horretan.

HIRUGARREN SEKTOREKO ADARREN BANAKETA 1999AN



Heziketa, osasuna eta ekintza sozialak deritzon adarrak enplegu handiena biltzen du. Lehenago erran dugun bezala, adineko biztanleriak zeregin garrantzitsua du horretan, baina bertze bi berezitasun ere aipa daitezke:

- Bata, Kanboaldeko mikro-klimak eragin dituen hainbat osasun-erakuntza-ren plantatzea. Mende honen hastapenean gune hori biriketako minen (tuberkulosia) sendatzeko berezitua bazen ere, gaur egun eraikuntza horiek bertze jardueretan birkonbertitu dira (zahar-etxe, sanatorium...).
- Biga, Hendaiaetik Angeluraino, kosta osoan thalasoaterapiaren inguruan azken urte hauetan irekitako zentron biderkatzea.

HIRUGARREN SEKTOREKO EGITURAREN BILAKAERA 1975ETIK 1990ERA

	1975	1982	1990	Adarren garrantzia 1990ean	Bilakaera 1975-90
Merkataritza	10.110	10.500	12.520	%20,6	%23,8
Garraioak eta telekomunikabideak	4.475	4.220	5.460	%9,0	%22,0
Merkataritza-zerbitzu merkatalak	14.525	16.268	24.232	%39,9	%66,8
Alokairu eta "kreditu-bail" higiezinak	180	244	280	%0,5	%55,6
Asegurantzak	185	208	372	%0,6	%101,1
Finantza-erakundeak	1.150	1.220	1.420	%2,3	%23,5
Merkataritza-zerbitzuak ez diren zerbitzuak	13.275	12.388	16.496	%27,1	%24,3
Hirugarren sektorea	43.900	45.048	60.780	%100,0	%38,5
Enplegu orokorra	80.415	77.940	91.336	%66,5	%13,6

Iturria: RP, 1990

Oharra: 1999ko emaitzak nekez parekatzen ahal dira aurreko urtekoekin, bertze nomenklatura baliatu baita hauen auzetako.

HIRUGARREN SEKTOREKO EGITURA (1999)

	1999	Adarren garrantzia 1999an		
Merkataritza	15.117	%21,1		
Garraioa	3.865	%5,4		
Finantza-jarduerak	2.301	%3,2		
Higiezin jarduerak	1.682	%2,3		
Enpresentzako zerbitzuak	8.557	%11,9		
Partikularrentzako zerbitzuak	11.037	%15,4		
Heziketa, osasuna, ekintza soziala	20.080	%28,0		
Administrazioa	9.028	%12,6	<i>Bilakaera 1975-99</i>	<i>Bilakaera 1990-99</i>
Hirugarren sektorea	71.667	%100,0	%63,3	%17,9
Enplegu orokorra	98.652	%72,6	%22,7	%8,0

Iturria: RP, 1999

Erran bezala, horra hor 1975-1990 garaietarako Euskal Herria 2010 txostenean sektore honetaz egin den analisia.

Enpresarentzako zerbitzuen hazkundeak etorkizun baikorra erakusten du

15 urtez hirugarren sektoreak ia 17.000 enplegu sortu ditu. Hirugarren sektoreko adar guzkiek enpleguak sortu dituzte.

Enpresentzako merkataritza-zerbitzuek hazkunde handiena lortu dute: +%117koa 15 urtetan. Guztira, 5.000 landun dihardute honelako lanetan:

- Errekuperaketa, aholkuraritza-asistentzia-ikerketa.
- Finantza- eta asegurantza-laguntza.
- Higiezin, alokatze eta kreditu-bail higikorrek.
- Irakaskuntza- eta ikerketa-arloetan.

Guy Di Méo-k eta Franck Guérit-ek, Paueko bi ikertzailek, Pirinio Atlantikoetan eta bereziki Baionan %76ko heinean goratu den enpresentzako zerbitzu-enpresen gorakada harrigarria erakusten dute. Sektoreko osagai estrategikoenak diren ikerkuntza-, aholkuraritza- eta antolaketa-jardueren kasua oraindik adierazgarriagoa da (+%27 Baionan eta %9 Pauen) (La ville moyenne dans sa région-Pau, Les pays de l'Adour, l'Aquitaine, 1993, 60. or.).

Hazkunde hori intentsiboa izan bada ere, enpresentzako zerbitzu komertzialen garrantzia apalagoa da IEHan (%5,6) Frantziako estatuan baino (%7).

Kategoria sozio-profesionalen bilakaerak, lan-esku kalifikatuagoa eskatzen duen enpresentzako zerbitzu komertzialen garapena baieztatzen du. Alabaina, 1982 eta 1990. urteen bitartean, koadro eta goi-mailako lanbide intelektualen kopurua %46ko heinean emendatu da. Kategoria honen baitan, unibertsitateko irakasleek eta lanbide zientifikoek hazkunde azkarrena izan dute (+%77), enpresetako koadro teknikoak hurbil izanik (+%69). Proportzioz, koadro gutxiago daude Frantziako Estatuan baino, baina bi bilakaera horiek IEHan gertatzen ari den jazarpen teknologikoaren seinale dira, ilustrazio hobereana industria informatikoaren eta ingeniariartzaren garapena delarik. Honela, goi-mailako formakuntzarako eta teknologiaren transferentziarako formakuntza-zentroen sortzea (IDLS-ESTIA bilakatu dena geroztik) aipa daiteke.

Hirugarren sektorean enplegu gehien sortu duten gaineratiko adarrak ondokoak dira:

- Asegurantza.
- Pertsonentzako zerbitzuak (konponketa —autogintza kenduz—, osasuna, ekintza soziala, animazio-zerbitzuak, kultur eta kirol zerbitzuak, eta bertzelako zerbitzuak, hala nola tindategia, ilea-paindegia, estetika, argazkilaritza, garbiketa...).
- Alokairua eta "kreditu-bail" higiezina.

- Xehekako merkataritza (elikagaiak).

Xehekako merkataritza (elikagaiak kanpo) enpleguari dagokionez egonkorra izan den bakarra da.

Sasoiko turismoa

Turismoa Ipar Euskal Herriko ekonomiaren tertziarizazioaren faktore garran-tzitsua da.

15 urtez, jabetxe-edantegi-hoteletako enpleguak %40ko heinean emendatu dira, eta 1990an enpleguaren %5 biltzen zuten (4.400 enplegu). Kanboko osasun-turismoko 800 enpleguak, thalaso-terapiako 550 enpleguak eta turismoak eragiten dituen enpleguen gain-kopuruak gehitzen baldin badi-tugu, turismoak biztanle aktiboen %10 inguru biltzen ditu (9.000 langile). Kostaldeko thalaso-terapia-ko bost zentroek, arrantzaren negozio-zifra bera eragiten dute.

Oro har, turismoak jardueraren %15 ordezkatzen du.

Harrerarako ahalmen garrantzitsuak. Ipar Euskal Herriak Akitaniako biztanleriaren %9 ordezkatzen du, baina hotelgintzaren ahalmenen %20, kanpalekuen %13, eta etxebizitza sekundarioen %15. Gisa berean, Pirinio Atlantikoko biztanleriaren %43 ordezkatzen du, baina hotelgintzaren %68, kanpalekuen %82 eta etxebizitza sekundarioen %68. Azken urte hauetako hamabi hotel-kateren plantatzeak agerian ezarri du lehiari aurre egiteko gaizki posizionatua den familia erako ohiko hotelgintzaren biziraupenaren arazoa. Gain-kapazitatearen arazoa pausatzen da, Frantziako estatu osoan inon ez bezala, 30 kilometroetan kontzentratuak diren 5 thalaso-terapia zentroengatik. Bigarren etxebizitza kopurua %30 emendatu da azken 8 urtetan. Biarritz eta Hendaiako kantonamenduek etxebizitza %30 ordezkatzen dute, eta ia %40, Donibane Lohizuneko kantonamenduak. Bigarren etxe-bizitzek Ipar Euskal Herriko ohe turistikoan ia erdia biltzen dute, eskualdean egin daitekeen turismoa politikatik at ezarriz. Eraikiko diren aterbetze turistikoaren kontrolaren garrantzia agerian ezarria da, era-gingorakorra baitute dagoen lur-presio izugarriarengan.

Sasoia zabaltzeko indarrak. Aterbeen hazkundearen kontrolik ezak gaur egun dauden egiturak zailtasunetan ezartzen ahal ditu, hotelgintzan bezala. Ekainetik irailera —uztail eta agorri hilabeteetan bereziki— kontzentratzen den eta saturazio-arazoak pausatzen dituen sasoiko turismoa izaten da. Horrek agerian ezartzen du, azpiegituren handitzea baino, urtean zehar hedatuko litzatekeen eta enplegua egonkortuko lukeen turismoaren hedapenaren beharra. Alde horretara egindako indarrak azpimarratzekoak dira: Hego EHko jendeak Zuberora gaineko aterbeak baliatzen ditu neguan, azpiegituz hornitua den Biarritzeko hiriak negozio eta festibalen turismoa lortzen du, eta duela 15 urte birbultzaturiko Kanboko termalek urtean 11 hilabeteko jarduera segurtatzen dute.

e) Eskulangintzaren garrantzia eta dinamismoa

Eskulangintzaren 7 enpresak definitzeko, bi ezaugarri nagusi hartzen dira kontuan: jarduera eta handitasunezko ezaugarriak.

- Jarduera-ezaugarriari dagokionez, enpresa hauek ekoizpenean, transforma-zioan, konpontzean edota zerbitzu-prestazioen jardueran ari dira. Guztira, 250 lanbide baino gehiago dira partikularren edo enpresen zerbitzuko.
- Handitasun ezaugarriari dagokionez, enpresa sortzeko mementuan ez dira 10 langile baino gehiago enplegatu behar. Ondotik atari hau pasatzen bada ere, enpresa, eskulangintzako sektorean geldi daiteke "segipen-eskubide" bere-ziari esker.

Eskulangintzako enpresa, Lanbide-Ganbarak kudeatzen duen lanbideen katalogoan markatua da.


1999an, Ipar Euskal Herriko eskulangintzak 7.600 lansaridun biltzen dituen 5.083 enpresa ditu.

Eskulangintza ongi plantatua da IEHan: 1.000 biztanleko 19 ofiziale dira (14, Frantziako estatuan).


ESKULANGINTZAKO ENPRESEN JARDUERA MULTZOKA (1999-25-11)

Jarduera-sektorea	Enpresa-kopurua	%	Frantziako Estatuko banaketa
Elikadura (haragia gabe)	248	4,9	4,0
Haragia eta arraina	227	4,5	3,7
ELIKADURA	475	9,3	7,7
Metalen obratzea	306	6,0	4,6
Oihala eta jantziak	71	1,4	2,4
Larruak	19	0,4	0,1
Altzairuak eta altzairugintza	232	4,6	4,9
Beira kimikoa, zeramika, eraikuntza-materialak	61	1,2	1,6
Inprimaketa, papera, arte grafikoak	71	1,4	1,6
Bertzelako artikuluen fabrikatzea	197	3,9	3,4
EKOIZPENA	957	18,8	18,6
Hargintza	406	8,0	18,4
Teilatugintza, iturgintza, berogintza	277	5,4	4,0
Zurgintza, zerragintza	397	7,8	5,5
Instalazio elektrikoak	227	4,5	5,5
Apainketa	558	11,0	6,4
Terrazagintza eta bertzelako obrak	217	4,3	5,9
ERAIKUNTZA	2.082	41,0	45,6
Garraioak	142	2,8	7,5
Konponketak	556	10,9	10,0
Zuritzegintza, tindaketa	555	10,9	6,3
Bertzelakoak	316	6,2	4,2
ZERBITZUAK	1.569	30,9	27,9
GUZTIRA	5.083	100,0	100,0

ESKULANGINTZAKO ENPRESEN KOPURUAREN BILAKAERA 1981ETIK AURRERA




LANBIDE SAILKATZAILEAN BILDURIKO ENPRESEN
 INSKRIPZIO ETA KENTZEEN KOPURUAREN BILAKAERA 1996TIK 2000RA



Iturria: Pirinio Atlantikoen Lanbide Ganbara


Enpresen kopuruak bilakaera aski egonkorra izan du. Egoera hau desberdintzen da beherakada nabarmena izan duen auzoa den Biarnorekin. Bertalalde, 1996tik hona eskulangintzako enpresen sortzea gora joan da, eta gelditzeen kopurua behera 1998tik hona.

BANAKETA, JARDUERA-SEKTOREKA (1999AN)



Ikus daitekeenez, eraikuntzaren sektoreak eskulangintzako enpresen %41 biltzen ditu. Ondotik zerbitzuak ditugu (%30). Banaketa hau Frantziako estatuan dagoena bezalakoa da.

JARDUERA-SEKTOREEN BILAKAERA




Jarduera-sektoreen bilakaera (%)	1986/1992	1992/1999
ELIKADURA	-15,0	-2,1
EKOIZPENA	0,3	-8,4
ERAIKUNTZA	-2,0	-3,5
ZERBITZUAK	6,0	16,8
GUZTIRA	0,6	1,1

1986tik elikaduraren eta ekoizpenaren sektoreko enpresen kopurua murriztu egin da. Denbora berean zerbitzuak hornitzen dituzten enpresen kopurua handitu egin da nabarmenki (+%16,8).

Hona hemen 1986 eta 1992. urteen bitarteari buruz 1994an egindako ikerlanean agertutako jorak:


- Elikaduraren sektorean, haragigintzako lanbiden kopurua nabarmenki murriztu da.
- Eraikuntzaren sektorean, egoera kontrajarria bada ere, obra handia murrizten ari da (hargintza, zurgintza), bigarren mailakoa (iturgintza, apainketa) mantentzen delarik. Parkeen eta baratzeen antolaketei loturiko lanbideak azkarki emendatu dira (+45 enpresa).
- Ekoizpenaren sektoreari dagokionez, metalen obratze eta inprimaketa eta serigrafiako lanbidei loturiko jarduerak emendatu dira, eta oihal, jantzi, larru eta zurari loturikoak apaldu.
- Zerbitzuen sektorearen garrantzi gorakorra, bereziki pertsonarekiko loturiko zerbitzuen (ileapainketa, estetika) eta garbiketa-zerbitzuen dinamikari zor diogu. Konponketa-arloko jardueren beherakada azpimarratzekoa da (etxetresna elektrikoak, Hi-Fi, bitxiak).

ESKULANGINTZAKO ENPRESEN ESTATUTU JURIDIKOA



Enpresa indibidualak nagusi dira (%69). Hala ere, azken hamarkada honetan horien partea 18 puntuz murriztu da. Sozietatean artean, enpresen %82 S.A.R.L. motakoak dira (2.588 S.A.R.L.).

ENPRESEN BANAKETA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA




Forma juridikoek garrantzi desberdina dute sektorearen arabera. Hain zuzen, sozietateen partea aski altua da elikadura eta ekoizpen aktibitateetan (%40 baino gehiago); eraikuntza eta zerbitzuetan, aldiz, enpresa indibidualak aise nagusitzen dira (%70 baino gehiago).

Lansaridunak


Eskulangintzako enpresen %47k langileak enplegatzen ditu. 2.398 enpresa horietan 3 langile ari dira, batez bertzte.

ENPRESABURUAK



Departamenduko ofiziale gehienak (%52) 36 eta 50 urte bitartekoak dira. Ho-rien artean, %30 51-60 urte bitartean daude, erran nahi baita negozioaren transmisio-garaian.


ENPRESABURUEN SEXUA



1999an enpresa-sortzaileen %78,5 gizonezkoak dira.

Eraikuntza arloan emakumezkoek enpresa %6 sortu dituzte bakarrik. Zerbitzuen sektorean, aldiz, ia sortzaileen erdiak emakumezkoak dira.

ENPRESEN KOPURUAREN BANAKETA LURRALDEKA



Enpresen banaketa biztanleriarena bezalakoa da. Lapurdik eta Nafarroa Behereak kopuru berak atxiki dituzte azken hamarkada honetan; aldiz, Zuberoak %15eko murrizketa jasan du, gaur egun 311 enpresa bilduz (denbora berean, biztanleria %6,2ko heinean apaldu da).

Joera nagusiak:

- Zenbait lanbide desagertzen ari dira bizimoduaren aldaketagatik.
- Industria eta merkataritzako egitura handien sortzeak auzoko edo hurbileko ofiziale eta merkatariek desagerrarazten ditu.
- Enpresa franko segidarik gabe suertatzen dira; ondorioz, horien jardura eteten ari da.
- Sektore guzietan langile kalifikatuen eskasia dago.

1. Centre-bourg frantsesez.
2. [populazio aktiboa (>14 urte)/populazio osoa (>14 urte)] ¥ 100
3. Hauek dira enpresak zuzenean denbora labur baterako egiten dituen lan-kontratuak.
4. Bost urteko lan-kontratua segurtatzen duen "Gazte-enplegua".
5. Le Pays Basque en perspective, Club de prospective Pays Basque 2010.
6. 2000ko emaitzak falta zaizkigu joerak segitu duen jakiteko.
7. Ofizialgintza, artesautza.

Milesker berezi bat:

- Mikel Epaltzari, arrantzari buruz hainbat informazio luzatzeagatik.
- ELB sindikatuko M. Berhocohirigoini, 2000. urteko laborantza-eroldaren emaitzak luzatzeagatik.
- Garapen Kontseiluko kideei, biztanleriaren azken eroldaren emaitza landuak luzatzeagatik.

- AGRESTE. Recensement agricole (2000). *La fiche comparative*, Aquitaine.
- CHARRETON FILGI (1997). *La pêche en Pays Basque*, Hemen elkarte.
- CLUB DE PROSPECTIVE PAYS BASQUE 2010 (1993). *Diagnostic*.
- CLUB DE PROSPECTIVE PAYS BASQUE 2010 (1994). *Le pays Basque en perspective*.
- EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA (2001). *Diagnostic territorial, analyse des données issues du RGP de (1999)*. document provisoire.
- EUSKAL HERRIKO INDUSTRIA ETA MERKATARITZA-GANBARA (2000). *Le Pays Basque en chiffres*, Baiona.
- EUSKAL HERRIKO INDUSTRIA ETA MERKATARITZA-GANBARA (2001). *Conjoncture économique Pays Basque*, 12. zbk, Baiona.
- Eustat, INSEE, Eusko Jaurlaritza, Akitania Eskualdea (2000). *Euroeskualdea zenbakitan (2000)*.
- INSEE. Recensement de la population (1999). *base de données Communes, Profils*.
- MAILHARRANCIN E., SOULÉ B. (1996), *L'activité économique du Pays Basque nord*, Hemen elkarte.
- OFIZIALEAK SINDIKATUA (1999). *L'artisanat en Pays Basque*.
- SOULÉ BERNADETTE (1994). *Structure de l'emploi et des professions au Pays Basque*, Begira, observatoire économique du Pays Basque.
- SOULÉ BERNADETTE (1994). *Mouvements naturels et structure démographique au Pays Basque*, Begira, observatoire économique du Pays Basque.

